

## EUSKARAREN KALE-ERABILERA APALDU EGIN DA EUSKAL HERRIAN AZKEN HAMAR URTEETAN

- Euskal Herriko kaleetan euskararen erabilera % 12,6koa da
- Joera desberdinak sumatzen dira herrialdearen arabera: Bizkaia (% 8,8), Gipuzkoa (% 31,1) eta Ipar Euskal Herrian (%5,3) euskararen erabilera txikitu egin da; Araba (% 4,6) eta Nafarroako kaleetan (% 6,7), aldiz, aurreko neurketetan baino euskara gehiago entzun da.
- Hitzunak zenbat eta gazteago izan, orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara.

Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-Neurketaren emaitzak aurkeztu ditu Soziolinguistika Klusterrak gaur goizean, EHUren Ibaetako Campusean egindako agerraldian. Olatz Altuna Ikerketaren zuzendariak eman du 2016an Euskal Herri osoan behaketa bidez jasotako datuen berri. Ikerketa honetan, Euskal Herri osoko 144 udalerritako kaleetan jaso dira datuak, eta 187.635 elkarrizketaren nahiz 515.260 solaskideren informazioa bildu da. Jasotako datuen bolumen handi horrek bermatzen ditu fidagarritasun estatistikorako baldintzak.

Altunarekin batera aurkezpenean egon da Maddi Etxebarria Soziolinguistika Klusterraren lehendakaria. “Ikerketa honek euskararen egoera aztertzeko duen balioa” eta “orain arteko ibilbidean izandako garapen tekniko eta profesionala azpimarratu zituen”. Altuna eta Etxebarriarekin batera, aurkezpenean izan ziren Iñaki Martinez De Luna, Eneko Anduaga eta Eneko Gorri, Batzorde Zientifiko zabalagoaren ordezkari gisa.

### Ondorio nagusiak

Euskararen kale-erabilera apaldu egin da Euskal Herrian azken hamar urteetan. 2006an %13,7koa zen eta 2016an, berriz, % 12,6koa. Azken bost urteetan, gainera, euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera txikiagoa ere neurtu da: % 3,7tik (2011) % 2,7ra (2016).

Hego Euskal Herrian, 2011tik 2016ra, euskaldunak % 50 baino gutxiago diren herrietan mantendu egin da euskararen erabilera maila; euskaldunak herritarren % 50 baino gehiago diren herrietan, aldiz, jaitsiera neurtu da. Ipar Euskal Herrian berriz, azken bost urtean, euskararen ezagutza gutxiagoko eremuetan kaleko erabilera jaitsi egin da eta ezagutza altueneko eremuan (Nafarroa Beherean eta Zuberoan) igo.

Hiriburuetako euskararen kale-erabileraren bilakaerek bakoitzaren lurraldeko joera bera izan dute, Iruñean izan ezik: Iruñeako erabilera maila bere horretan dago 1997tik; Gasteizen euskararen erabilerak igoerarik nabarmenena izan du azken bost urtean; Donostia eta Bilbon txikitu egin da kaleko euskararen erabilera; eta Baionan gaztelaniaren erabileraren bezainbestekoa da euskararena.

Haurrak (% 18,3) dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak; hauen ostean gazteak (% 12,3), ondoren helduak (% 11,5) eta, azkenik, adinekoak (% 8,1) dira euskara gutxien erabiltzen dutenak. 1989tik haurren, gazteen eta helduen euskararen erabilerak gora egin du; adinekoenak, berriz, etengabeko beherakada izan du. Hala ere, 2006tik 2016ra adin-talde guztietan atzerakada gertatu da.

Emakumezkoek ( gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara kalean. Haur, gazte eta helduetan ematen den joera da. Azken 3 neurketetan errepikatu den joera da eta lurralde guztietan gertatzen da.

Haurren presentziak eragin handia du euskararen kaleko erabileran. Erabilera daturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira (% 19,3); eta baxuenak, berriz, nagusiak haurren presentziarik gabe ari direla (% 8,6). 2006tik 2016ra, Euskal Herria mailan, haurren arteko euskararen erabilerak jaitsiera izan du.

Ipar Euskal Herriari soilik begiratzen badiogu, ordea, nabarmentzekoa da haurren arteko elkarrizketetan euskararen erabilera 2,5 puntu igo izana.

### **Ikerketaren ibilbidea eta laguntzak**

Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa ibilbide luzeko ikerketa-lan zabala da, Siadecoren eta Euskal Kultur Batzordearen –EKB- eskutik 1989an abiatu, eta 2001etik Soziolinguistika Klusterrak egiten duena. Hogeita zazpi urtetan zazpi argazki atera zaizkio euskararen erabilerari Euskal Herri osoan.

Ikerketak hizkuntzen presentzia kuantifikatzen du, kalean entzundako elkarrizketa informalak behatuz. Euskal Herrian bertan sortua da metodologia , eta zazpi edizioetako eskarmentuak metodologia aski kontsolidatzea ahalbidetu digu. Gaur egun, ezinbesteko erreferentzia da euskararen bizi-indarra ebaluatzeko.

Ikerketa honek erakunde hauek izan ditu finantzatzaile: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Nafarroako Gobernuako Euskararen Nafar Institutua – Euskarabidea, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Iruñeko Udala, Gasteizko Udala eta beste 36 udal.

### **Soziolinguistika Klusterra**

Euskararen garapen sozialaren ikergune nagusia da, gaur egun. 2004an sortu zen eta ordutik honako ibilbidean soziolinguistikari ikerketa-esperientzia, harreman-sarea eta ezagutza sortu eta metatzen joan da Klusterra. Euskararen bilakaera sozialaren inguruko ezagutza nazioarteko testuinguru zientifiko eta akademikoan kudeatzen du eta, Euskal Herrian bertan ere, soziolinguistika ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren dibulgazioa egiten du. Bere bazkide, erakunde publiko, gizarte eragile, zientzia eragile eta bestelako soziolinguistika alorreko baliabide eta gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Emaizak eta informazio gehiago:

[www.soziolinguistika.eus/kaleneurketaeh](http://www.soziolinguistika.eus/kaleneurketaeh)